araba álava
foru aldundia diputación foral

Adierazpen Instituzionala, Emakumeen aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Eguna

2026ko Azaroak 25

Gobernu Kontseiluak, 2026ko azaroaren 24an egindako ohiko bilkuran, honako adierazpen instituzional hau onetsi du azaroaren 25eko Emakumeen aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Eguna dela eta:

Emakumeen aurkako Indarkeria desagerrarazteko Nazioarteko Eguna dela eta, Arabako Foru Aldundiak berretsi egiten du emakumeen eta neskatoen eskubideak eta askatasunak urratzen jarraitzen duten indarkeria matxistaren modu guztiak desagerrarazteko konpromiso sendoa eta irmoa duela, haien adina, jatorria, egoera edo testuinguru soziokulturala edozein dela ere.

Emakumeen aurkako indarkeria giza eskubideen urraketa larria da, eta oraindik ere gure gizartean dauden egiturazko desberdintasunen adierazpen iraunkorrenetako bat. Era askotara eta bizitzaren hainbat eremutan adierazten da, eraso agerikoenetatik hasi eta kontrol, umiliazio, jazarpen edo indarkeria sinbolikoko adierazpenetaraino, zeinak, askotan, ikusezin geratzen baitira edo normalizatu egiten baitira.

Aurten arreta jarri nahi diogu gizarte osoari zuzenean eragiten dion gai bati: indarkeria matxistaren aurrean hartzen dugun lekua. Indarkeria hori ez delako gizartetik kanpo gertatzen. Gure kaleetan, ikastetxeetan, lanlekuetan, ingurune digitaletan, lagun taldeetan, familia eremuetan eta bestelako esparruetan gertatzen da. Indarkeria aitortzen duguna baino presenteago dago.

Errealitate horren aurrean ez dago neutraltasunik. Beste aldera begiratzeak, gertaerak minimizatzeak, jokabide jakin batzuk justifikatzeak edo isilik egoteak ondorioak ditu. Ekintzarik ezak eta posizionamendurik ezak indarkeria iraunarazten laguntzen dute, eta indarkeria mantentzen eta erreproduzitzen laguntzen dute. Indarkeria matxista ez dute erabiltzen dutenek bakarrik sostengatzen, axolagabetasuna, isiltasuna edo pasibotasuna nagusitzen diren lekuetan ere aurkitzen du lekua indarkeriak.

Horregatik, herritar guztiei dei egiten diegu, aurrera pauso bat emanez, argi eta irmo koka daitezen indarkeria matxista pairatzen dutenen alboan. Gizarte aktiboa, konprometitua eta erantzunkidea behar dugu, emakumeen aurkako desberdintasunei eta indarkeriei eusten dieten jokabideak, jarrerak eta diskurtsoak zalantzan jartzeko gai dena. Ikusle soil gisa jokatzen ez duen gizartea behar dugu, prebentzioan, detekzio goiztiarrean eta biktimei laguntzean aktiboki parte hartzen duen gizartea.

Erakunde publikoek politika publiko eraginkorrak bultzatzen jarraitzeko erantzukizuna dugu, indarkeria matxista prebenitzeko, biktimen babesa, arreta eta berreskurapen integrala bermatzeko, eta berdintasunean, errespetuan eta bizikidetzan oinarritutako kultura sustatzeko. Era berean, administrazioen, profesionalen, elkarteen eta eragile komunitarioen arteko lankidetza indartzen jarraitu behar dugu, erantzun koordinatuak, integralak eta eraldatzaileak eskaintzeko.

Hala ere, indarkeria matxistarik gabeko gizartea eraikitzeko, herritar guztien eguneroko konpromisoa behar da. Pertsona guztiok dugu jarduteko gaitasuna, indarkeria legitimatzen duten

Raquel Ugarriza Mendibil – rugarriza@araba.eus - 945 18 19 02 – araba.eus

jokabideak eta diskurtsoak baztertuz, indarkeria jasaten dutenei lagunduz, diskriminazio egoerak salatuz eta ingurune seguruak, berdintasunezkoak eta indarkeriarik gabekoak sortzen lagunduz.

Azaroaren 25ean, gizarte bidezkoago eta berdinzaleago baterantz aurrera egiteko erabakia berritzen dugu, eta emakumeen aurkako indarkeria mota guztiak desagerrarazteko konpromisoa berresten dugu. Era berean, bat egiten dugu Emakundek, Foru Aldundiek eta EUDELek bultzatutako erakunde arteko kanpainaren barruan egindako deiarekin eta Arabako gizarteari denoi eragiten digun hausnarketa helarazten diogu: non kokatzen zara indarkeria matxistaren aurrean? Aurtengo kanpainaren leloak dioen bezala, ***'Indarkeria matxistaren aurrean, zure lekua axola du'.***

Izan ere, indarkeria matxista desagerraraztea ez da kontu pribatua bat, ezta besteren arazoa ere; erantzun kolektiboa eskatzen duen erantzukizun kolektiboa da. Ez da nahikoa indarkeriarik ez erabiltzea; horren aurrean jarrera aktiboa hartu behar da. Eraso bakoitzak, diskriminazio ekintza bakoitzak eta zigorgabetasun adierazpen bakoitzak gizarte gisa interpelatzen gaituztelako. Isiltasunak ere lekua hartzen duelako eta indarkeria matxista iraunarazten laguntzen duelako.

Gure ekintzek, baina baita gure ez-egiteek ere, arrastoa uzten dute, eta, hala, aukeratzen dugun lekuaren arabera, arazoa mantentzen lagunduko dugu edo horri aurre egiten. Emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean, inor ez da kanpoan geratzen; guztiok gara indarkeria horren aurka borrokatzen duen edo indarkeria horrek irautea ahalbidetzen duen gizartearen parte.

Pertsona guztiak interpelatzen gaitu. Eta soilik inplikazio kolektibotik, gizarte erantzunkidetasunetik eta herritar guztien konpromiso aktibotik abiatuta eraiki ahal izango dugu emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko Araba bat.

Indarkeria matxistaren aurrean, ez dago neutraltasunik, ezta axolagabekeriarako lekurik ere. Hausnartu non kokatzen zaren. Posizionatu. Jardun. Zure lekuak axola du, eta zure inplikazioa mugarri izan daiteke. Izan zaitez aldaketaren parte.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko azaroak 24

Raquel Ugarriza Mendibil – rugarriza@araba.eus - 945 18 19 02 – araba.eus